



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Ostirala
2009-11-06

VIIURTEA 1.820.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Rafa Uribarren, Markel Olano, Xabier Iturbe eta Jexux Mari Gorostidi, atzoko inaugurazioan. IMANOL GARCIA

ABALTZISKETA ETA LARRAITZ ARTEKO BIDE EGOKITU BERRIA

TOLOSALDEA Bideak 1,5 kilometroko luzera du eta %8ko gehieneko malda; Gipuzkoan inauguratzen duten bigarren bide egokitu da 4

Lau jeltkide omenduko dituzte, lau hitzalditan

TOLOSA Txato Agirre, Mikel Atxaga, Begoña Rebuelta eta Gorka Agirre gogoratuko dituzte Arzallusek, Olanok, Egibarrek eta Ibarretxek 6

AITOR MENDILUZE BERTSOLARIA

«Txapelketako finalisten artean ez dut aldaketa handirik espero»

IRURA Egun Gipuzkoako txapeldun dena bihar estreinatuko da Bergarako finalaurrekoan 5

ANJEL UNZU
MUSIKARIA

«Testuak ez, musika erabiltzen dut gauzak esateko»

ALEGIA Kontzertua emango du gaur 22:00etan 4

Ekon taldeak bere biraren azken kontzertua emango du bihar

ANOETA Gaztetxean ariko dira 23:00etan 'Zirikatzen' jarraituz Tour'-en baitan 2

JUBILATUENTZAKO KANPAINA

MULTIOPTICAS

1.A ZERBITZU OPTIKOETAN

www.multioplicasgipuzkoa.com



Betaurrekoak erosten dituzunna kalitate bereko beste leiar batzuk dituen betaurrekoak * oparituko dugu.

* Arrozkiak oparituko ditugu, kalitate bereko leiarrekin



Carri Gurea
Tel. 943 25 26 91
ARRAGATI

Baigara 19
Tel. 943 25 26 91
BURGARA

C/ Nueva 11 - 01001
Tel. 943 25 26 91
DONOSTIA

Baselategi 2
Tel. 943 25 26 91
EIBAR

Euzko Antzokia 1
Tel. 943 25 26 91
ERIKINTZA

Wendol 11 10
Tel. 943 25 26 91
LEJUN

C/ de la Victoria 11 10
Tel. 943 25 26 91
ONDIZIA

San Francisco 23
Tel. 943 25 26 91
TOLOSA

Metal doinuak entzungai izango dira Gaztetxean Ekonen azken kontzertuan

Anoeta » Bihar 23:00etan Arrasateko taldeak 'Zirikatzen jarraituz Tour' biraren azken kontzertua emango du.

ERREDAKZIOA

Ekon taldeak Anoetako Gaztetxean aukeratu du bere azken kontzertua emateko. Bihar izango da hitzordua, 23:00etatik aurrera. Ondoren, DJ saioak luzatuko du jai.

Hala, 2003az geroztik isilean egon den taldea berriro ere taula gainean ikusi ahal izango dute Anoetara gerturatzen direnek. Pasa den urtarrilaren 8an egin zuten beraien itzulerako aurkezpena Bilboko Kafe Antzokian. *Zirika-*



'Zirikatzen jarraituz Tour' ibilbidearen azken kontzertua eskainiko du Arrasateko taldeak, bihar, Anoetako Gaztetxean. HITZA

tzen jarraituz Tour jarri diote izena beraien itzulerako ibilbide honi.

Bazirudien Ekonen frak eta xisterazko bozgorailuari pilak betiko bukatu zitzaizkiola. Baina hauei beti gustatu izan zaie «zirikatzea»; beraiek aitortu zuten, 10 urtetan bizi izan zuten «abentura horrek oraindik ere barruak astintzen dizkigu» eta «azkenean ezin izan diogu bueltatzeko tentazioari eutsi».

«Bizitakoa errepikatzen nahia»

Deabruasko izan dituzte beti inguruan, taldearen ibilbidea estu jarraitu eta sakonean bizi izan dutenak. Beraiek izan dira, Ekonen sugarrak berriz piztearen errudun nagusiak. «Askotan egin dugu topo abentura hura gurekin bizi eta gogorazai diguten lagun uga-

rirekin; gure abesti eta kontzertuek beraienazko suposatu zutena ikusteak emozioz bete gaitu eta bizitakoa errepikatzen nahia piztu du gugan», aitortu dute taldeki-deek.

Taldearen historiari errepa-soa

Ekon Arrasaten (Gipuzkoa) sortutako musika taldea da. Azkenengo fasean zortzi taldekide ziren, metal musika eta letra aldarrikatsua abesteko neska eta mutil ahotsak erabiltzen zituzten. Hiru disko kaleratu ostean (*Zurrumbilo kaotikoa*, Mil A Gritos, 1998; *Etnia 2000*, Mil A Gritos, 2000; *Salatzen dut*, Gor Diskak, 2002) 2003an banandu ziren. Azken kontzertua etxean bertan, Arrasateko Gaztetxean, eman zuten, 2003ko urriaren 25ean.

Esan bezala, 2009ko urtarrilaren 8an, MySpace gunearen bitartez, eta Bilboko Kafe Antzokiaren egindako prentsaurrekoaren bitartez, taldeak urte bereko maiatzetik abendura bitartean bira berri bat eginez itzultzeko asmoa adierazi zuten.

Ezker abertzaleak «ertzainek izan duten jarrera» salatu du

Anoeta » «Euskal presoen aldeko aldarrikapen pankartak kentzen aritu dira udan eta ondoren ere», argitu dute.

ERREDAKZIOA

Anoetako ezker abertzaleak ertzainek herrian izaten ari diren jarrera salatu nahi izan du ohar baten bidez. «Udaguztian zehar asko izan ziren puskatu eta kendu zituzten pankarta, kartel eta denetarik aldarrikapenak», salatu dute. Batik bat «presoeikiko elkartasuna adierazten zutenak eta Jon Anzaren desagertpenaren ingurukoak»



Era haueko kartelak kendu dira. HITZA

izan direla gaineratu dute ezker abertzaleak.

Duela gutxi gertatutako zerbaitek ere ekarri dute gogora: «Urriaren 24an, gazte independentistek independentzia eguna antolatuko zu-

tenean, goizean Anoetako kaleetatik pankartak kentzen aritu ziren. Aurreko asteko ostiralean, hainbat ertzainek herriko leku ezberdinetan ipinita zeuden eskualdeko presoen argazkiak kendu zituzten».

Hala ere Anoetako ezker abertzaleak «argi esan nahi du, Euskal Herriaren eskubideen defentsan lana egiteagatik espetxeen dauden presoen aldeko aldarrikapenak kalean jarraituko duela».

Era berean, deia luzatzen dute herritar orori «euskal presoen aldeko aldarrikapenak burutzera, hileko azken ostiraletan parte hartuz, ban derolak balkoian jarri, ekimen ezberdinetan parte hartuz, ...».

Autokarabana batean lapurtzea egotzita gazte bat atxilotu dute

Tolosa » DVD irakurgailu bat, beroki bat eta bost argi eramangarri eramaten saiatu zen 19 urteko gaztea.

ERREDAKZIOA

Herenegun iluntzean gazte bat atxilotu zuten autokarabana batean lapurtzeagatik. Hain zuzen ere, Tolosan zegoen aparkaturik autokarabana; DVD irakurgailu bat, beroki bat eta bost argi eramangarri eramaten saiatu zen 19 urteko gaztea.

Pasa den hilabetean ere atxilotu zuten gazte hau lapurretak egiteagatik autokarabanetan, Tolosan, Zumaian eta Iruran.

Autokarabanaren jabeak salatu zuenez, asteazkenean 09:00etan autora joan eta barruan norbait ibili zela konturatu zen, sarraila behartuta zegoelarik. Egun berean, 16:00etan emakumeak bere beroak soinea zuen gazte bat ikusi zuten eta Ertzaintzara deitu zuten honen berri emateko. Emakumeak orbain bat zela eta ezagutu zuten bere berokia eta orduan Ertzaintzak gaztea atxilotu egin zuten.

Hilberriak

JOSE LUIS GOENAGA EIZMENDI
'Joxelu'
Azaroren 4an hil zen, 37 urte zituela.
-Goian bego-



Zinen bezalakoa zinelako maite zaitugu.

AZPEITIA
2009ko azaroren 6a

Lan-Mobelego zure koadrilla

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko HITZA.info / Tel.: 943-65 56 95

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

KONDEKO ALDAPA, 5 - 20400 TOLOSA
TELEFONO: 943 67 00 40 FAXI: 943 670719
WWW.FUNERARIASVASCONGADA.COM

ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

Emakumeak komikian duen presentzia aztertuko dute

Gizartea » Hilaren 10ean hitzaldia izango da, eta martxan da II. Tolosaldeko Emakumeen eta Migrazioen Komiki Lehiaketa.



Hitzaldirako eta Komiki Lehiaketarako erabili duten irudia. HITZA

INIGO TERRADILLOS

Tolosaldeko Immigrazio Sailak bi ekimen antolatu ditu emakumea eta komikiaren gaia uztartuz. Batetik, datorren asteartean, hilaren 10ean, *Emakumeak eta komikiak munduan zehar*. Skolastika hitzaldia izango da. Bestetik, Tolosaldeko II. Emakumeen eta Migrazioen Komiki Lehiaketa jarri dute abian.

Josune Muñozek emango du hitzaldia asteartean, Kultur Etxean, 18:00etan. «Munduan zehar Komikiak duen presentzia eta emakumeak bertan nola isladatzen diren» erakutsi nahi dute so-lasaldiaren bidez. Hala, informazio teorikoa nahiz praktikoa emango du emakumeen komikiari buruz, batez ere, Ekialde Hurbilean, Asian eta Afrikan oinarrituta.

Tolosaldeko bigarren lehiaketa
Tolosaldeko Immigrazio teknikariak Samira Godik azaldu bezala, «astearteko hitzaldia baliagarria izango da antolatu dugun Komiki Lehiaketarako, bertatik hartu ahalgo baitira ideiak, korrante edota teknikak».

Pasa den urtean literatur lehiaketa antolatu zuten Emakumeen eta Migrazioen inguruan, eta aurtengoan, komiki lehiaketa egitea eraba-

» DATUAK

Hitzaldia

- **Gaia.** Emakumeak eta Komikiak Munduan Zehar. Skolastika.
- **Nork.** Josune Muñoz.
- **Noiz.** Asteartea, hilak 10, 18:00etan.
- **Non.** Tolosako Kultur Etxean.

Komiki Lehiaketa

- **Ekimena.** II. Emakumeen eta Migrazioen Komiki Lehiaketa.

- **Atalak eta sariak.** 14-18 urte artekoen artean 1. saria 200 euro, eta 2. saria 100 euro. 18 urtetik gorakoen artean 1. saria 500 euro eta 2. saria 250 euro.
- **Aurkezteko epea.** Abenduaren 30a. Tolosaldea Garatzenen (San Esteban, 20 / 943 65 45 01).
- **Ezaugarriak.** Gehienez 10 orrialde, DIN A4 neurrikoak. Txuri-beltz edo kolorean eta eskuz eginak.

ki dute. Tolosaldea Garatzen, Tolosaldeko Udaleko Berdintasun Saila eta Gipuzkoako Foru Aldundia dira ekimenaren antolatzaileak.

Edonork hartu ahalgo du parte, baina adinaren arabera bi sail banatu dituzte, hau da, 14 urtetik 18 urte bitartekoan atala egongo da batetik, eta bestetik 18 urtetik gorakoena. Sariak ere atalen arabera-koak izango dira.

Antolatzaileek azaldu bezala,

komikian gizon-emakumeen estereotipo tradizionalak gaunditzea, gaia ondo jorratzea eta originaltasuna baloratuko da. Bost hizkuntza desberdinetan egiteko aukera eman dute: euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez, frantsesez eta arabieraz.

Abenduaren 30era a izango da parte hartzeko azken eguna, etalana Tolosaldea Garatzenen utzi behar da. Otsailean jakinaraziko dituzte irabazleen izenak.



Ahazturikoak gogorarazteko irudiak

TOLOSA » Mugarik Gabeko Medikuak erakundeak antolatuta, *Krisi ahantziak: bizitza galduak* erakusketa izango da bihurtik aurrera ikusgai Aranburu jauregian. Munduan gatzaka eta gaisotasun ugari dagoela gogorarazteko jarri du erakundeak abian erakusketa ibil-

taria, eta Tolosan izango da hilaren 14ra arte. Bi sailtan banatuta dago erakusketa: gatzaka armatuak eta izurriteak. Hain zuzen ere, arazo hauek Somalian, Kongoko Errepublikan Demokratikoan, Chechenian eta Kolonbian kokatu dituzte. HITZA

Emaitza onak lortu dituzte Aurrera-Saiaz elkarteko pilotariek

ERREDAKZIOA

Aurrera-Saiazeko pilotariek emaitza onak lortu dituzte aurreko asteburuan. 14 partida jokatu zituzten, horietako bat elkarteko bi talderen aurka. Beste 13 partidetatik 10 irabazi zituzten.

Asteburu honetan zortzi partida izango dituzte etxeko bezala jokatuz. Horietatik sei partida gaur jokatuko dituzte. Bidanien hiru partida izango dira, 19:30ean hasita. Lehenengoan, kadeteko bigarren mailan, Urnieta izango dute aurka. Bigarrenengoan, kadete mailan buruz burukoan, Goierriko ordezkarria izango du aurkari. Hirugarrenean, lehen mailako jubeniletan Goierrikoak ere izango dira aurkariak.

Beste hiru partidak Alegian izango dira, 20:00etan hasita. Lehenengoan, nagusietan buruz buru Hernani izango du aurrean. Bigarrenengoan, nagusietan buruz buru ere, Eibar izango da aurkaria. Hirugarrenean, berriz, nagusien ohorezko mailan, taldekidetako ariko dira nor baino nor, Aurrera-Saiaz 1 eta 3 bikoteak, hain zuzen ere.

Biharko bi partidak Ikaztegietan jokatuko dituzte, 11:00etan hasita. Lehenengoan, nagusien mailan buruz burukoan, Zazpi-Iturri elkarte amezketararen ordezkarriaren aurka ariko da. Bigarrenengoan, nagusien hirugarren mailan Errenteriako elkartearen aurka ariko dira.

Sei partida jokatuko dituzte Intxurre elkartekoek asteburuan

ERREDAKZIOA

Intxurrepilota elkartekoek sei partida izango dituzte asteburu honetan. Horietatik hiru Ikaztegietan jokatuko dituzte, gaur 20:00etan hasita. Bi partida nagusi mailakoak izango dira. Intxurre 1ek Aretxabaletaren aurka jokatuko du eta Intxurre 2k Belokiren aurka. Beste partida, kadeteko lehen mailakoan, Intxurre-Gailurrerantzek Amezketako Zazpi-Iturriren aurka jokatuko du. Kanpoan jokatuko dituzten partidei dagokionez, kadeteen bigarren mailan Antiguoren aurka jokatuko dute; kadeteen lehenengo mailan Azkoitikoaren aurka ariko dira eta maila horretan baina buruz buru Villabonako Behar-Zanako ordezkarria izango dute aurrean.

K Kirol jarduera

Gaur, ostirala, Tolosan Aretoko futbola

- Usabalgo goiko kantxan, 20:45ean, probintzialeko 3. mailako partida: Laskorain-Zarautz.
- Usabalgo beheko kantxan, 20:45ean, probintzialeko 3. mailako partida: Laskorain-Zarautz.

Saskibaloia

- Usabalgo goiko kantxan, 19:15, seniorrak: Take-Tximista.

Bihar, larunbata, Tolosan Aretoko futbola

- Usabalgo goiko kantxan, probintzialeko 1. mailako partida: 16:00etan: Tolargi-Eskolapioak.
- Usabalgo goiko kantxan, nazional mailako partida: 18:00etan: Laskorain-Concepto Creetech.
- Usabalgo goiko kantxan, jubenilak: 10:30ean: Laskorain-Gopar.

Eskubaloia

- Usabalgo beheko kantxan, 11:30ean, infantilak: Tolosa A-Arrasate.
- Usabalgo beheko kantxan, 13:00, kadeteak: Tolosa-Urola.

Saskibaloia

- Usabalgo goiko kantxan, 09:00etan, infanfil mutilak: Ipar Take-Easo 97. Infanfil neskak: Mende Take-Ordizia.
- Usabalgo goiko kantxan, 10:30ean, infanfil mutilak: Ego Take-Astigarraga. Infanfil neskak: Eki Take-Bera Bera.
- Usabalgo goiko kantxan, 12:00ean, Junior mutilak: Take-Sorraluze. Kadete emakumezkoak: Take Aralar-Easo.
- Usabalgo beheko kantxan, 16:00etan, Junior neskek: Take-Añorga.

Futbola

- Usabalgo futbol zelaian, 09:30ean, kadete neskek F11: Tolosa CF-Oiartzun.
- Usabalgo futbol zelaian, 11:00etan, infanfil txiki: Tolosa CF-Real Union.
- Usabalgo futbol zelaian, 12:30ean, infanfilak: Tolosa CF-Urnieta.
- Usabalgo futbol zelaian, 15:30ean, senior neskek: Tolosa CF-Segura.
- Usabalgo futbol zelaian, 17:30ean, lurraldeko 1. maila: Amartz-Danena.

Dardoak

- Beotibar pilotalekuan, Dardoen Txapelketa, 10:00-01:00.

Iragarki laburrak

LANA

- **Zerbitzaria.** Tolosako enpresa batek zerbitzaria behar du. Asteburuetan eta jai egunetan lan egiteko neska bat behar du. Esperientziaduna. 661 46 3193.



Enirio-Aralar Mankomunitateko zenbait alkate, Uribarren, Iturbe eta Olanorekin batera. I. GARCIA



Bide egokituaren zati bat Larraitz auzoan. I. GARCIA

Abaltzisketa eta Larraitz arteko bide egokitua inauguratu dute

Abaltzisketa » Foru Aldundiaren eta Kutzaren arteko elkarlana izan da; 650.00 euroko aurrekontua izan du.

IMANOL GARCIA

Abaltzisketa eta Larraitz lotzen dituen bide egokitua inauguratu zuten atzo Markel Olanoren diputatu nagusiak, Xabier Iturbe Kutzako

lehendakariak, Rafa Uribarren Landa Garapeneko diputatuak eta Jexux Mari Gorostidi Abaltzisketako alkatea. Inauguraziora ere gonbidatu zituzten Enirio-Aralar Mankomunitateko alkateak eta eskualdetik Altzo, Amezketa eta Orendaingo ordezkariak izan ziren.

Gorostidik azalduenez, aspaldikoa da pasealeku bat egitearen ideia, eta modu honetako bidea egitea eskertu zuen. «Inaugu-

ratu aurretik herrikoak eta bisitariak ari dira dagoeneko erabiltzen eta zoriandu dute egindako bidearengatik».

Proiektua Foru Aldundiak eta Kutzaren arteko elkarlana izan da. Guztira aurrekontua 650.000 eurokoa izan da eta bederatzita hilabeteetan egin dituzte lanak. Bi erakundeetako ordezkariak nabarmendu zuten, horrelako bideak egitearen helburua Gipuzkoako leku adierazgarrietako zenbait

zaitan «irrisgarritasuna ahalik eta gehien ziurtatzea, eta ingurunearen aberastasun naturala, kultura eta historikoa pertsona guztiei transmititzea» da.

Kilometro eta erdiko luzera

Bideak 1,5 kilometroko luzera du eta %8ko gehieneko malda du. Bideak bi metroko zabalera du eta zorua hormigoi inprimatukoa da, gurgildun aulkientzat eta ibiltzeko zailtasunak dituztenentzat egokia.

Gipuzkoan egin den bigarren bide egokitua da, Arantzazukoarena eta gero.

Ibilbidean zehar inguruko natura eta kultura baliabideei buruzko 40 informazio-panel daude, goierliebean eta braillean idatziak. Era berean, fauna espezie ezberdineko brontzezko hainbat irudi jarri dira. Bestalde, bidean zehar itsuei tratatuaren berri emateko testura ezberdineko gida distala jarri dute. Orientatzen laguntzeko, iluntzen duenean, ibilbidea argiztatua egongo da bi orduz, ibiltariari abiapuntura itzultzeko aukera emateko. Bideko argiez gain, argi berdeko puntuak jarri dira Abaltzisketako norantzakoan eta argi gorrikoak kontrakoan.

«Gauzak esateko testuak baino musika erabiltzen dut»

ANJEL UNZU » Gitarrajolea eta konpositorea

I. GARCIA

Alegian aurretik izan da Anjel Unzu (Iruñea, 1961) gitarrajolea, baina ez gaur ariko den bezala, bera bakarrik gitarrekin. Kultur Etxean izango da emanaldia, 22:00etan Udazkenean Kultura egitasmoaren baitan.

Nolako izango da kontzertua?

15 urte daramatzat nik bakarrik gitarrekin horrelako kontzertuak ematen. Gitarrentzako konposatu ditudan obra batzuk joko ditut, horietako batzuk argitaratu ditudan bi diskoetan daudenak.

Kontzertu instrumentala izango da. Abestearena ez duzu gustuko?

Bakoitzak du bere lengoia eta bere ibilbidea. Testuak ez, musika erabiltzen dut gauzak esateko.

Zer musika mota izango da?

Jendea kontzertura joan dadila eta berak ikusiko du. Musika klasikoa, folk eta jazz landu ditut. Esango nuke ez dudala konkretuki horietako ezer egiten, baina musika mota horiek erabiltzen ditut. **Estilo horien nahasketa egiten duzu, beraz.**

Ez da nahasketa jakin baten bila joan naizela. Konposatzen hasten naizenean, ateratzen da bakoitz dena, urte guzti hauetan musikatik jaso dudana. Azkenean, entzuten dudanean konposatzen dut, entzuten dut eta topatzen ditut estilo ezberdinetako ezaugarriak.

Kontzertu intimista izango denaren itxura du.

Bai eta gustatzen zait horrela izatea. Gitarra akustikoak erabiltzen ditut, baina amplifikatuta jotzen dut. Kontzertu honetatik gustatzen zaidan gauzetako bat da dina-



HITZA

mika asko egotea, hau da, indar askoko uneak eta une suabe eta intimistak. Gustatzen zait gitarra ondo entzutea, azkeneko lerroan dagoenak sokaren urratu bat entzuteraino.

Horrelako kontzertu batean, nola sentitzen duzu entzulegoa, nola komunikatzen zara beraiekin?

Horrelako kontzertu batera joaten dena, prestutasun batekin doa, bainagehienez ez dakite zer topatuko

duzen. Behin emakume batek emanaldiaren ondoren esan zidan, senarra laguntzera joan zela eta bertara joan aurretik pentsatzen zuela aspertu egingo zela, baina gero bera egon den kontzertu ederrena izan zela. Entzuleak isiltasun osoan nabaritzen ditut, musikak horrela eskatzen duelako. Eta beti oso adi nago entzuleek nola erantzuten dioten entzundakoari jasotzeko.

LAGUN ARO GBC BIZKAIA BILBAO BASKET

Azaroak 8 • Igandea • 12:30ean
Donostiako Ilunben

KARMELE ARSUGA (ORENDAIN)

sarrerak HITZAko gure egoitzan jaso

AKABA BERA BERA USKUDAR

Azaroak 7 • Larunbata • 16:30ean
Donostiako Bidebietan

MILA ARROSPIDE (IBARRA)
ONINTZA FERNANDEZ (IKAZTEGIETA)

sarrerak leihatilan harpidedun txartelarekin

GIPUZKOAKO BUSKAL KANTU TXAPELKETA

AZKEN FINALA AURREKOANARRA

AZAROAK 7 • IGANDEA • 19:00etan

ARRANZAZUKO KULTUR ETXEA

Azaroak 15, Igandea, 18:00etan:

FINALA - DONOSTIAROKO ANTZOKI ZAHARRERAN

antolatzailea: **hitza berria**

«Ez dut aldaketa handiegirik espero finalisten artean»

Aitor Mendiluze » Duela lau urte jokatuako Txapelketa Nagusian, finalista izan zen irurarra, eta egun, Gipuzkoako Txapelduna da; bihar, Bergarako geltokian igoko da bertsolaritzaren errusiar mendi bihurritsura.

» BIHARKO AURKARIAK NOLA IKUSTEN DITUZU?

- **Maialen Lujanbio.** Zer esan? Berak esaten du dena.
- **Etxahun Lekue.** Goxoa, erregularra, ofiziotarako lagun ona.
- **Beñat Gaztelumendi.** Azken urteotako balore berrietan indartuena, oso goi mailan aritzeko gai da lan guztietan.
- **Fredi Paia.** Sorpresiboa izan daiteke, eta azken aldian hartu duen bidea asko gustatzen zait.
- **Jon Martin.** Teknikoa, esperientzia handikoa eta esan nahi duena esan nahi duen moduan esaten espezialista.

ESTI EZEIZA

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiko lehendabiziko finalerdia jokatu da bihar Bergaran. 44 bertsolarik hasi zuten bidaia, eta hemendik aurrera, 25 ariko dira lehian txapela lortzeko helburu horretan. Eskualdeko azken parte-hartzailea, hau da, Aitor Mendiluze bihar gehituko da txapelketaren errusiar mendira. Duela lau urteko txapelketan finalista izan zenez, aurrean, zuzenean, finalurrekoetan hasi da bertsotan. Bergaran jokatu da biharko saioa, Labegaraieta kiroldegian. Bertan, 17:30etik aurrera, ondorengo bertsolariak ariko dira kantuan, Aitor Mendiluzerekin batera: Fredi Paia, Maialen Lujanbio, Beñat Gaztelumendi, Jon Martin eta Etxahun Lekue.

Bihar zure txanda da; zer moduz? Hasteko gogoz al zaude?

Ba egia esateko bai, denbora nahikoa da txapelketa hizketagari ia bakarri bihurtu dela, eta bada garaia teoriak utzi eta praktikara pasatzeko ere. Buruari buelta gehiegi ematen ariteza ez da lagungarria izaten, eta aukeran nahiago bueltak oholztan ematea.

Nola ikusten duzu Bergarako finalaurrekoa? Saio polita aterako al da?

Oso talde polita dela uste dut, eta saio ona ateratu daitekeela. Aurrez ezer ziurrik ez dago, baina taldeak berak erakartzeak beti errazagoa

Postua ezin izan daiteke helburu, izatekotan ere, egitearen ondorio izan beharko luke

Txapelketa kasinoan jokatzeko bezala da, inoiz ez dira gauzak pentsatu bezalaxe ateratzen

Gustatzen zaidan bezala aritzen saiatuko naiz; lortzen badut ederki eta bestela zer egingo diogu

bihurtzen du oholtzarako lehen pauso hori, eta oholztan bertan ere erosago edo gusturago sentiarazteko balio du. Saio ona ateratzea ez dago horren baitan bakarrik, beste hainbat faktore ere izango dute eragina, baina aurrez positiboa den guztia saioaren alde izango da.

Nola prestatu zara Txapelketa Nagusirako?

Ez dut aparteko ariketak egin, bertsoskolan astean bitan elkartu eta kantatzeaz aparte. Bertan hitz egindakoak eta elkarriz emandako aholku eta iritziek burua martxan edukitzen eta giroaren laguntzen dute, eta hori da lehenik eta behin behar dena, burua horretara edukitzea. Hortik kanpo, eta esateaz lotsatu beharko nukkeen arren, ez dizkiot bost minutu ere eskaini. Tira, berandu izango da dagoeneko, ezta?

Mania edo ohitura berezirik ba al duzu txapelketari begira? Saio

bakoitzaren aurretik egiten duzun zerbait. Hara eramaten duzun gauza bitxiren bat...

Ez, hori neurri batean *mito* bat dela uste dut. Final baten aurretik ondo lo egin eta burua zentratzen saiatzen zara, baina hortik kanpo ez da aparteko ezer egiten, edo nik ez dut egiten behintzat. Ez naiz toreatzailea, ez naiz kaperatik pasa eta hamar errosario erreazten edo ohetik eskuin hankarekin jaisten edo ispiluari ez begiratzen hasiko, ezta? Finean dena hiru hitzetan laburtzen da, joan eta egin. Beste guztia gure burua engainatzea da. Saiora eroso joan behar da, gustura, baina aparteko beste kezkarik gabe, hau edo hura egin, zera ez egin... Ke ba, gauzak hori baino simpleagoak direla uste dut.

Nola ikusten duzu zure burua orain? Gustura al zaude azken aldian duzun bertsokerekin?

Egindako prestataketekin? Garai onean al zaude?

Beno, zaila da hori zehatz jakitea. Bertsotan gustura ari naiz, ondo pasatzen dut, baina puntuaren nagoen galdetuz gero... Ez dakit, zer da puntuaren egotea? Noiz komeni da egotea? Zertarako puntuaren? Ez dakit, bertsotan gustura ari naiz eta bertsoskolan oso ondo pasatzen dut, eta horrek balio dit. Hortik aurrerakoak han egin behar dira, aurretiako kontuak ez du gehiegi balio.

Gipuzkoako txapelduna zara, eta behin baino gehiagotan egon zara Txapelketa Nagusiko finalean. Honenbestez, zure

buruarekiko exijentzia, handiago izango da duela urte batzuk baino ezta?

Neurri batean bai, lehen eta orain bertsotan agitea



da nire helburu nagusia, ez hainbeste sailkapena. Saiora joan eta niri gustatzen zaidan bezala aritzen saiatuko naiz, lortzen badut ederki eta bestela zer egingo diogu ba, horrek ez du esan nahi gehiago edo gutxiago naizenik, han gehiago edo gutxiago egin dudala besterik ez. Duela bi urteko txapela etxean dago, eta ez ditu oraingo bertsokerekin egingo, beraz ez dut uste horrek aparteko presiorik jarri beharko lidakeenik. Hemendik aurrerako da inporta duena, lehen eginak ez du eraginik.

Eskualdeko lau bertsolarik hartu duzue parte Txapelketa Nagusian. Beste hirurak kanpoan geratu dira jada. Nola ikusi duzu hauek egin duten lana? Harritu al zaitu kanpoan geratzeak?

Bai eta ez. Batetik txapelketa kasinoan jokatzeko bezala da, inoiz ez dira gauzak pentsatu bezalaxe ateratzen, eta suertez zabiltzala uste duzunean etxea ere gal dezakezu. Hori horrela zenbaitek espero adinako suertetik ez duela izan ematen du, eta beste zenbaitek espero baino hobea. Bailarakoak ere halaxe. Zaila da bakoitzaren aspirazioak zenbateraino bete diren kanpotik neurtzea, hori ia bakoitzak erantzun beharrekoa izango da.

Kanpoan geratu diren nahiz aurrerajartzen duten bertsolarietako batzuek esan dutela, aurtengoan, «espero baino maila baxuago dagoela». Horrela dela uste al duzu?

Neuri ere halako sententzia geratu zait lehen fasearen amaieran, baina egia da hori ez dela erabat justua. Ez da hainbeste maila baxuago espero zen zenbaitengandik hainbeste jaso ez izateak sortzen duen sententzia baino. Hala ere oso zaila da aurrekoekin parekatzea, eta *a priori*ko iritzietatik abiatuta epaitzen dugu dena. **Lehen kanporaketeta-**

ko sei irabazletatik hiruk, 20 urte edo gutxiago dituzte. Gazteak indartsu datoz beraz. Hau logikoa dela uste al duzu?

Hori logikoa eta ona dela uste dut, kontrakoa litzateke txarra. Datorenak ez dauka inolako mugarik gainera, ez goitiki eta ez behetik ere, eta horrek ausardia eman diezaiokela ere egia da. Zoriondu eta horrela jarraitzeko animatzea besterik ez dagokigu, eta geurean ez lortzeko abisu moduan jasotzea ere bai.

Azken bi Txapelketa Nagusietan, finalista ia berdina izan zarete. Hau da, bertsolari gehienek errepikatu egin zenuten. Oraingoan ere, antzekoa gertatuko al da? Finalista berriren bat egongo balitz, zein uste duzu izango litzatekeela?

Ez dakit neuk esatea erabat egokia den, baina ez dut aldaketa gehiegirik espero, izen bat alda daiteke eta asko asko jota bi. Nortzuk? Puff, Estiballes, Gaztelumendi, Sarriegi... Ez dut ikusten inor besteengaitik nabarmen ari denik, eta horrek pronostikoak zailtzen ditu. Alde batera emozioa ere horrek ematen dio, ezta?

Txapelketa bateko lehen helburua irabaztea da, baina jarri al diozu zure buruari epe motzeragoko beste xederik?

Ez nago ados, txapelketa bateko lehen helburua egitea da, edo niretzat bai behintzat. Lehena eta bakarria ere izan daiteke gainera. Postua ezin izan daiteke helburu, izatekotan ere egitearen ondorio izan beharko luke. Nik hala ulertzen dut, eta horregatik ez nau kezkatzen postuak, neure buruari eman dezakeenak baizik. Eta hori irabaztea baino helburu exijentetagoa da. Hala ez?

Aurreko hiru saioak ikusita, sorsari eraman al duzu?

Bai, handiak. Lehena Zestoako saioan bertan, Jone Uriak irabaztea ezusteko handia izan zen. Bertsolari oso onak zeuden, eta bizkaitarrarena sorpresa handia izan zen. Bigarren berriz, ezusteko desatsegina izan zen, Iruzu eta Agirrerena hain zuzen ere. Asko estimatzen baititut, eta gertutik bizi baititut. Badakit biek ere bertsotan oso ongi egiten dutela, maila ona dutela, baina egun txar batengatik kanpoan geratu dira. Dena den, Txapelketa hori da.

Arzallus, Olano, Egibar eta Ibarretxek lau jeltzide omenduko dituzte Tolosan

Gizartea » Uzturre Fundazioaren eskutik hitzaldi bana eskainiko dute abertzaletasunaren inguruan.

ASIERIMAZ

Txato Agirre, Mikel Atxaga, Begoña Rebuelta eta Gorka Agirre egin zuten lana eskertzeko eta gogora ekartzeko, Uzturre Fundazioak hitzaldi ziklo bat antolatu du EAJren laguntzarekin.

Xabier Arzallusen hitzaldiak emango dio hasiera *Abertzaletasuna zure eginez bizi* egitasmoari hilaren 12an. EAJren presidente ohiaren ondoren, Markel Olano, Gipuzkoako diputatu nagusia; Joseba Egibar, Gipuzkoako Buru Batzarreko presidentea, eta Juan Jose Ibarretxe, lehendakari ohi, etorriko dira Tolosara.

Abertzaletasunaren gaurkotasuna

Uzturre Fundazioko bi kidek, Itxaropena Urkiolak eta Mirentxu Etxeberria, atzo aurkeztu zituzten Tolosako Batzokian, ondorengo egunetarako antolatu dituzten hitzaldiak.

Bertan, Urkiolak abertzaletasunaren gaurkotasuna aldarrikatu zuen: «Abertzale izatea, euskal nazionalista izatea, gaur egun lekuz

kanpo dagoela, iraganako gauza bat dela edo gatazkarekin nolabaiteko lotura suposatzen duela esaten digutenean guk geureari tinko eutsiko diogu. Badira zenbait kontzeptu eta sentimendu oso gogoan eduki beharrekoak. Hala eskatzen baldin badigute ere, ez dugu espainolitate normaltasun osoz hartu eta horrekin bizitzeko asmorik».

Tinkotasun horren eredu aurreten zendu diren lau jeltzaleren bitartean aurkitu zuen Urkiolak: «Txato Agirre, Mikel Atxaga, Be-

goña Rebuelta eta Gorka Agirre perfil horrekin bat datoz. Euskal Herria maitatzen zuten eta bere alde egin zuten lan. Lauren garrantzia ez zen alderdi edo herri mailakoa bakarrik, kultura eta euskara mailan ere azpimarratzekoa da euren lana».

Uzturre Fundazioko kideentzat bizitza horiek eredu garri dira. Ondorioz, laurak omentzeko «lau hizlari garrantzitsu» ekarriko dituzte Tolosara: «Alde batetik pisu politiko handia dutelako ekarri

nahi genituen eta bestetik, orotzen eta omentzen ditugun lau pertsonekin zuzen-zuzeneko harremana zutelako».

» HITZALDIK

■ **Xabier Arzallus.** Azaroak 12, osteguna, Kultur Etxeko areto nagusian, 19:30ean. Gaia: *Euskal Herria, mapa bat baina gehiago*.

■ **Markel Olano.** Azaroak 19, osteguna, 19:30ean Kultur Etxean. Gaia: *Euskararik gabe ez dago Euskal Herriak*.

Abenduaren 3an ekitaldia

Abertzaletasuna zure eginez bizi hitzaldi zikloaren ondoren, abenduaren 3an, Tolosako Zerkausian ekitaldi-jaialdi politikoak ospatuko dute. Bertan euskal kantauk, bazkaria, ... egingo dituzte.

Ekitaldi politikoan berriz, Joseba Egibar eta EAJren presidentea, Iñigo Urkulluk, hartuko dute parte.

■ **Joseba Egibar.** Azaroak 27, ostirala, 19:30ean Batzokian. Gaia: *Erabakitzeko eskubidea, arazoa ala konponbidea*.

■ **Juan Jose Ibarretxe.** Abenduak 3, osteguna, Kasinoan 19:30ean. Gaia: *Konpromiso politikoak: aukera bat, behar bat, betebehar bat*.

LAU OMENDUENTZAT ESKER ONEKO HITZAK

Itxaropena Urkiolak honela aurkeztu zuen atzo Tolosan bizi zen Txato Agirre atandarra: «Txatoren lanak eredu izaten jarraituko du, beti. Txato Agirre abertzale sutsua zen. Ekonomian lizentziatu zen Belgikan, eta ekonomia zientzia arloko gaitan aditua izanik, esate baterako, Ibarretxe Lehendakariaren aholkularia izan zen. Jeltzide moduan, Tolosako Udaleran zinegotzia izan zen eta, Mari Karmen Garmendia Kultura sailburu izan zenean, bere sailburu ordea. Gipuzkoako Buru Batzarreko buruzagietako bat ere izan zen. Galtzaundi Forumaren sortzaileetako bat, *Egunkarian* kolaboratzaile... Arlo pertsonalean, oso gogokoa zuen kirola Txatok. Horrela joan zitzaigun gainera. Afizio hori bertsozaletasunarekin ere lotzen zuen; entzule eta eta bertso idazle bezala».

Mikel Atxaga kazetari «esanguratsua» zen. Euskararen alde egin zuen lan: *Zeruko Argian*, gerora *Argia* izan zen proiektuan eta *Deiaren* hastapenetan.

Begoña Rebuelta Amorebietakoa zen. Zinegotzia, hiru legealditan Araba Batzar Nagusietako prokuradorea eta 85tik 87ra Batzar Nagusietako mahaiko lehen lehendakariordea.

Gorka Agirrerren aita Jose Antonio Agirre lehendakariaren anaia zen. «Erbestean hezitako haurra zen Agirre». Iparaldean EAJ klandestinoan ardura garrantzitsuak eduki zituen. 1995eko su etenean Euskadi Buru Batzarretik bera izendatu zuten negozioz lanetan aritzeko.



Uzturre Fundazioko kideak: Etxeberria ezkerrean eta Urkiola eskuinean. A.I.



Itsasertzeko ubarroia Leitzan

NATURA » Ubarroia da Phalacrocorax generoko hegaztiei ematen zaien izen orokorra. Uretako hegaztia da, arrainak dira bere elikaduraren oinarria. Munduan 30 espezie inguru dira, eta horietako bi Euskal Herrian bizi dira; kostaldean eta itsasotik gertuko ibai tarteetan. Leitzan zegoena Ubarroi handia zen. Euskaraz, hainbat izenekin ezagutzen da: Potorro edo pottorroa, bolborina, itsas-belea... A.I.MAZ

Immigrazio Programak ekitaldiak antolatu ditu Areson eta Leitzan

ERREDAKZIOA

Leitza, Goizueta, Areso eta Arano-Oinarriko Gizarte Zerbitzuko Immigrazio Programak hainbat ekitaldi antolatu ditu ondorengo egunetan.

Gaurtik igandera bitarte argazki erakusketa egongo da Aurrera Elkartean. Inaugurazio ekitaldia

gaur bertan egingo da, 19:30ean. Ondoren *Diamantes de sangre* filma botako dute eta azkenik Ramon Arozenaren hitzaldia egongo da. Ekitaldiak Afrikaren inguruan dira.

Emakumeentzako tailerra

Leitzako kiroldegian emakumeentzako tailerra egingo dute bihar 11:00etatik 13:00etara. Sexualitate osasungarria garatzearen inguruan jardungo dira.

Areson ipuin kontalaria

Eskolan, hilaren 9an, ipuin kontalaria egongo da. 15:00etatik 16:30era berriz, hitzaldia.

Leitzan bidezko merkataritza

Immigrazio Programak antolatutako azken ekimena Leitzako plazan burutuko da hilaren 15ean, igandean. 10:00etatik 13:30era bidezko merkataritza eta postreak antistansunean egongo dira.



Hizkuntzak:
Arabiera, italiara,
frantsesa eta ingelera
Maila guztiak
Irakasle gaituak

Errefortzu eskolak:
Letrak eta zientziak
Adin guztiak
Eguneroko jarraipena
Tamaina txikiko taldeak
Martin J. Iraola, 2 - behea
TOLOSA • Tel.: 943 67 24 48



Hernialdeko Udala
IRAGARKIA


Honen bitartez jakinarazten da, Hernialdeko Hiriko Antolamenduko Lehenbiziko Plan Orokorren Aurrerapen Txostena eta ingurumenaren eraginean baterako ebaluazio dokumentua jendaurrean dagoela 2009ko urriaren 28tik 2010eko urtarrilaren 27 ra.

Espediente hau Udaltzako Bulego Orokorrean dago.

Epe horretan epedientea aztertu eta iradokizunak eta alternatibak aurkeztu ahal izango dira.

Hernialde, 2009ko azaroaren 4 a.

ALKATE-LEHENDAKARIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

tolosaldekohitza.iragarkilaburra.com

Astearte arratsaldeko 15:00ak arte jasotako iragarkiak soilik argitaratuko dira.
IRAGARKIAK JARTZEKO: www.tolosaldekohitza.iragarkilaburra.com / 943-655695 telefono zenbakira

Etxebizitza 1.1 SALGAI

Aizarnazabal. Oso egoera onean dagoen etxebizitza salgai Aizarnazabalen. Prezio oso interesgarria (180.000 euro). Behe solairua izan arren, argitsua da. 2 logela ditu, komuna, sukalde amerikanoa eta egongela-jangela. Komuna izan ezik, beste guztia kanpora begira. Altzari eta guzti dago salgai. Inguruera lasaia du. 637-5133 04ra deitu.

Ataun. Baseria salgai Ataunen. 45 urteko 65.000 metro pinudi, eta 8.300 metroko soroak. Harremanetarako telefona: 943-133688

Beasaín. Pisu oso zentrikoa Beasaínen. 105 m², 4 logela, 2 bainueta, balkoi eta terraza. Ia berria, material eta eraikuntza kalitate handikoa. La Salle ikastetxetik oso gertu. Armairu eta altzariak, berogailua, parketa, sukaldeko elektragarri guztiak, garbigailua. Garaje itxia aukeran. Argazki eta info gehiago www.ttki.com/6609 webgunean. Telefona: 656-731143

Berriatua. Etxebizitza salgai Berriatuen. 72 metro koadro. Bi logela, komuna eta sukalde-egongela. Berriatua eta guztiz jantzia hartzeko aukera. Prezio negoziagarria. Deitu 946-166419 edo 946-139056 telefonora.

1.2 ERRENTAN EMAN

Gasteiz. Gasteizen pisua alokatzen da, altzari hornitua, 2 logela, sukaldia, jangela, egongela, igogailua eta beragailu zentrala. Txagorritxu eta Eusko Jaurlaritzatik gertu. Telefona: 665-752046.

Getaria. Egoera oso onean dagoen apartamendua alokatzen da. Guztiz amueblatuta dago eta bizitzera sartzeko prest. Interesatuek idatzi etxebila@hotmail.com helbidera.

Madotz. Aralar aldera, Madotz herrian, Larraunen, estudio-bizitza bat alokatzen da, 300 € hilean. Borda bat ere bai, 250 €. Telefona: 696-867756

1.3 ERRENTAN HARTU

Lekaitio. Lekaitio urte osorako errentan hartzeko pisu txiki baten bila nabil, 1 edo 2 logela. Telefona: 658-701953

1.4 PISUA KONPARTITU

Donostia. Oso ondo kokatutako etxebizitza batean. Etxean pertsona

bakarra bizi da. Ohe bikoitza, ikasteko mahaia eta armarioa. Ekainera arte, besterik ez. Deitu 20:30etik aurrera 669-962355 zenbakira.

Getaria. Pisu baten bila gabilta. Pisu handi eta guztiz amueblatua, egoera oso onean. Interesatuek idatzi etxebila@hotmail.com helbidera.

2 Motorra 2.1 SALGAI

Opel Corsa salgai. Opel Corsa 1.7 D salgai. Interesatuek 696-237416 telefonora deitu.

Toyota Previa monobolumena salgai. Toyota Previa monobolumena salgai. 650-402566

3.2 ERRENTAN EMAN

Zarautz. Garajea salgai edo alokagai Zarautzen, Aritzabalde kalean. Interesatuek deitu 943-131343 telefonora.

3.3 ERRENTAN HARTU

Tolosaldea. Autokarabana gordetzeko garaje edo pabiloi bila nabil (alokairu). Interesatuek deitu 653-740511 telefono zenbakira.

4 Lana 4.1 LAN BILA

Azpetia. Lan bila nabil. Azpetian, denda edo kafete-gi batean lan egitea nahiko nuke. Helbide elektronikoa: eargia@gmail.com Telefona: 647-081015 Ainhua.

Bizkaia. Begirale gisa lan egingo nuke. Begirale ikastaroa eginda daukat (Urtxintxa Eskola), magisteritzako azken ikasturtean nago, EGA titulu daukat eta kotxe propioa. Edozein gauzatarako deitu konpromisurik gabe. 680-538442

Donostia. Nikaraguako mutil bat naiz eta Donostian bizi naiz. Bertan edo inguruko herrietan lanetan bat egiteko prest nago, adineko pertsona zaintzen edota beste edozeintan. Interesatuek deitu 943-654057 telefonora.

Donostia. Neska euskalduna, haur hezitzailea, haurrek zaintzeko prest. Donostia eta inguruko herrietan, edozein ordutegitan. Edozein gauzatarako deitu inongo konpromisurik gabe. 616-383164

Donostialdea. Haurrek zaindu edo klase partikularrik emango nitzuke Donostian bertan edo inguruan. Umeekin esperientzia dut begirale bezala, baita

klase partikularrik ematen ere. Biologian lizentziatua eta EGA titulua duen neska bat naiz. Telefona: 679-280828

Gernika-Busturialdea. Pandero-klaseak emango nitzuke Gernika inguruan, Busturialdean. Edozein gauzatarako deitu inolako konpromiso barik zenbaki honetara: 680-538442

Gernika-Lumo. Erizain laguntzailea geriatrian lan bila dabil Gernika-Lumo aldean. Eskarmentu handia zaintze lanetan. Orduka zein egun osorako. Telefona: 645-704020 (Marisai).

Gernika-Lumo. Txapista naiz baina edozein lanetarako prest nago. Deitu telefono hauetara 94-6257080 eta 676-607568

Goierri. 55 urteko emakume esperientziaduna eta urte askoan ohitua, arratsalde eta gauetan pertsona helduekin edozein lan egiteko eskaintzen da. 663-957389.

Iruia. Giza elikadura eta dietetikian diplomatu naiz eta honekin zerikusia duen lanetan bila nabil. Irati. 697-522048.

Tolosaldea. Bigi garbitasunak: alfonbrak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisurik gabe. Gurutze: 638-944604 edo Belen: 695-708271.

Tolosaldea. Emakume eskualduna, arduratsua eta esperientzia handikoa eskaintzen da egunez zein gauz adineko pertsonak edo gaiko daudenak zaintzeko. Gida baimeña eta autoa dut. Interesaturik egonez gero deitu lasai eguneko edozein ordutan telefono zenbaki hauetara: 943-577409 edo 680-244281. Erreferentziak ere badituz. Posta: maripalargarmendia@gmail.com.

Tolosaldea. Neska senegaldarra, adinekoak zaintzen lan egingo nuke, eragozpenik ez internan sartzeko. Haurrek zaintzeko edota etxeko lanak egiteko ere prest nago. Interesatuek

deitu 943-654057 telefonora.

Tolosaldea. Tolosaldeko neska bat naiz eta astegunez arratsaldeetan lan egiteko prest nago, haurrek zaintzen, tabernan... Interesatuek deitu 616-077006 telefonora.

4.2 LANGILE BILA

Goierri. Bertako neska bat behar da Beasaínen ume bat zaintzeko eta garbiketa egiteko. Esperientziaduna. Ondoriozaintzen da. 609-413897

5 Irakaskuntza 5.1 EMAN

Donostia. Panderoa, kainabera eta txaramelak. Asteazkenero 19:30etik 20:30era, Donostiako Arrano Beltza Euskal Tokian (Ikatz kalea, 10). Informazio gehiago: arrano-koikastaroak@gmail.com

Gernika. Esperientziadun irakasleak talde txikitako klase partikularrik eskaintzen ditu Gernikan lehen hezkuntza eta DBHko ikasleentzako. Kontakta: 656-772012 (Nahia)

Gernika-Busturialdea. Neska euskalduna klase partikularrik emateko prest. Printzipio Gernika inguruan, oro har, Busturialdean. Edozein gauzatarako deitu inolako konpromiso barik. 680-538442

Iruin. Kemen eskuald dantza taldeak fundatzaile, arin-arin eta plaza dantzen ikastaroa antolatuko du urriaren 10ean hasi eta abendura bitarteko larunbatetan. Interesatuok hurrengo telefonora dei dezakuzue informazio eske: 667-553698

Lea-Artibai. Lehen hezkuntzan diplomatu, euskalduna eta auto propioarekin. Umeak zaintzeko edota klase partikularrik emateko prest nago, esperientzia daukat. Harremanetarako: 615-727286

5.2 HARTU

Arrasate. Batxilergo teknologikoko eskola partikularrik

etxean emango dizkidan neurri behar ditut. 669-635225

7 Denetarik 7.1 SALGAI

Altzariak salgai. Etxe aldatagatik. Egongela, bikote logela, ordenagailu mahaia eta Fagor etxeko etxeresnak. Denak batera (prezio hobean) zein banaka. Ourretan. Informazioa eta argazkiak: mikel_muebles@live.com edo 943-002311

Bideokamera. Sanyo etxeko Xacti HD1A bideokamera salgai. Argazkiak 5mp egiteko aukeran eta bideoa HD formatuan. Txikia, oso erraza erabiltzen, egoera ederrean eta osagarri guztiak. Bi bateria oparitzen ditut. 200 euro. 636-438540

Bikiendako karro-kapazoa. Bikiendako Arrue etxeko karro-kapazoa salgai. 2008koa. Oso praktikoa eta egoera bikainean. Lasai deitu. 649-005342

Dendako mostradorea eta hozkailua. Dendako mostradorea eta hozkailua salgai. Hots egin 948-460765 telefonora.

Gasolio-galdara. Osagarri guztiak. Roca modelo. 20.000 kcal. 12 berogailuarekin. Prezio negoziagarria. 943-793474 edo 616-238174

Hiztegia. Lur hiztegi entziklopedikoa salgai. 350 euro. Ondozainduta, ia-ia erabilgarri. 625-838413

Ibilziko zinta elektronikoa. Domyos etxekoa. Lau programa ezberdinekin. Berria. 270 euro. 652-762541

Kanarioak salgai. Interesatuek deitu zenbaki honetara eta galdetu Mikelenagatik.

Ikolan lanaldi
MANTENIMENDU MEKANIKO lanetan aritzeko, esperientzia duen MEKANIKO on bat behar da.
Epe luzerako kontratua, oso kondizio onean.
Ikusi lan eskaintzak: **943-16 20 48**
www.ikolanlanaldi.com

635-755453
Kapazoa. Bebe-car kapazoa eta silla salgai. Telefona: 616-801304.

Kawasaki Z750 salgai. Kawasaki Z750 Salgai 2007koa. Kolore beltza. Oso egoera onean. 12.000 kilometro, eta azterketa denak etxe ofizialean eginak. 5.500 euro. Harremanetan jartzeko deitu 660-337716 telefono zenbakira.

Kuma eta mini-kuma. Stokke kuma eta mini-kuma moldagarria salgai; 2 koltxoi, eltxo-sarea eta izarak barne. Oihilabetetik 5-6 urtera arte moldatzen da, egoera oso onean. Prezioa 330 euro. 639-020275 edo 943-765588

Liburuak. Liburu zaharrak. 1953. urteko liburuak saltzen ditut. 696-841951

Masaje aparatua. Hankak urarekin masajeatzeko aparatua elektrikoa salgai. 608-362607

Monozikloa saltzen dut. Monty etxekoa. Pare bat aldi bakarrak erabilia, berria. 100 euro. 605-730777

Patinetea. Umeen karrorako patinete unibertsala salgai. 650-962308

Pedalaria. Gitarra akustikorako pedalaria salgai. Erdi prezioan. Telefona: 943-771920

Pottoka arrazako bi behor salgai. Pottoka arrazako bi behor salgai. Biak pottoka arrazako zaldiarekin estalita daude.

Routerra. Hariarik gabeko routerra salgai. Telefonikako Amper Zyxelarekin batera. 608-362607

Sofa-oheta. Kanpoko neurriak 1,97 x 1,91 x 0,92 eta oheak 1,40 x 1,90. Mugimendu bakarrean irekitzeko.

Urdina eta oso gutxi erabilia. 500 euro. Telefona: 616-094634

Su Egurra salgai. Su egurra salgai. 20,30 eta 40 zentimetrotarako moztua. Etxera eramaten dugu. Harremanetarako telefono zenbakia: 615-75762

Telefono mugikorra salgai. Nokia 6124. Vodafone etxeko. 30 euro. 617-131751

Untxiak. Lau untxi salduko nituzke. Deitu 17:30etik aurrera. 665-749127

Zilarra. Zilarra erosiho nuke. Salitzeko badaukazu, deitu zenbaki honetara: 656-757698

7.2 GALDU

Urrezko pulterra. Urrezko pulterra bat galduten joan zen asean. Deitu 620-268060 telefonora.

Urriaren 12an Nintendo Ds grisa galduten. Urriaren 12an Nintendo Ds grisa galduten Zarautzen, bere babes poltsa urdinean zegoen, joko eta guzti. Auzkitz baduzue mesedez 685-717562 telefonora deitu.

7.5 HARTU

Bankuko billete eta txanpon erosten ditut. Telefona: 688-618502

Bigarren eskuko klarinete erosiho nuke. Bigarren eskuko klarinete erosiho nuke. Zurfire. Telefona: 627-224579

Lur saila Oñatin. Oñatin lur saila erosi edo alokatuko nuke. 609-117296

Lursaila erosiho nuke Goierri inguruan. Lursaila erosiho nuke Goierri inguruan. Eraikigarria edo ez eraikigarria izan daiteke. Deitu 634-464169 telefonora.

7.6 HARREMANAK

Donostia Alde Zaharreko Joaldunak. Zuk ere joaldun izan nahi duzu? Etorri gure entseguetara eta proba egin! Edo zure herriko jai edo ikuzketan gu han egotea nahi baduzu ere bai. aldezaharrekojoaldunak@gmail.com

Mutil bila. 40 urteko mutil bat naiz eta beste mutil batekin harremanak izan nahiko nituzke. Ahal baldiz, gazteagoarekin. Asmo bera baduzu, bidali SMS bat hona. Nire aldetik, diskrezio osoa. 665-755874

Neska bila. Kaixo! Donostiako 32 urteko mutil ezkondua naiz eta egoera berdinean dagoen emakume bila nabil konplizterako, interesatuek idatzi mppel-maz@gmail.com helbidera

7.7 ERRENTAN EMAN

Otaolan lokala. Otaola Hiribidean 60 m²ko lokala alokagai. 635-734261.

7.8 ERRENTAN HARTU

Taberna hartuko nuke errentan. 638-102963

Etxebila
9 4 3 - 4 4 6 1 6 6
ANTIGUO 3 logela, egongela, sukaldia, bainueta, kanpora. 31.050,000
EGIA Ameizagaña, Hasieran, 2 logela, egongela, sukaldia, bainueta, Terraza, Igogailua, 36.950,000
AMARA 2 logela, egongela, sukaldia, bainueta, kanpora. 38.625,000
AMARA Apartamentu polita, Logela, egongela, sukaldia, bainueta, Argitsua, 39.900,000
AMARA 3 logela, egongela, sukaldia, bainueta, Terraza, Altua, 43.900,000
AMARA 100m², 4 logela, egongela, sukaldia, 2 bainueta, Terraza, 58.000,000
AMARA 2 logela, egongela bikoitza, sukaldia, bainueta, Berriua, 41.500,000
AMARA Atikoa, 2 logela, sukaldia, egongela, bainueta, Terraza, 39.950,000
GROS Txofre k/ 9 urtetako apartamentua, Igogailua, Berria, 43.750,000
INTXAUURRONGO 2 logela, egongela, sukaldia, bainueta, Kanpora begira, Polita, 35.500,000
LOIOLA 2 logela, egongela, sukaldia, bainueta, Igogailua, 24.900,000
LOIOLA 2 logela, egongela, sukaldia, bainueta, Berriua, Igogailua, 39.500,000
MARTUTENE Batkoa, 2 logela, sukaldia, egongela, bainueta, Berriua, 34.300,000
ALZA 3 logela, sukaldia, bainueta, Bolkioa, Igogailua, 28.950,000
LEZO 75m², 3 logela, egongela, sukaldia, bainueta, Bolkioa, Eguzkitxua, 32.900,000
LASARTE 3 logela, egongela, sukaldia, bainueta, Bolkioa, Igogailua, 32.950,000
PASAI ANTZO 2 logela, egongela, sukaldia, bainueta, Kanpora begira, 25.950,000
PASAI DONIBANE 2 logela, egongela, sukaldia, bainueta, Polita, 25.950,000
ERRENTERIA 2 logela, egongela, sukaldia, bainueta, Oso polita, 36.900,000
HERNANI 2 Altkoa herri erdian, Igogailua, Berritzeko, 21.000,000 bakoitza.
ALOKAIRUAN
ALTO ERRONDO 2 logela, egongela, sukaldia, bainueta, Bistak, 850€
www.etxebila.net
www.etxebizitza.iragarkilaburra.com
Felipe IV etorb. 4 - DONOSTIA

FUNERARIA VASCONGADA BORKETAK
REKALDE BEILATOKIA
SELAOTIA
ULARRA
KENSALARAK
LORAGUA
APARTEGIA
DOLANAK
INTERNET-EE
www.funerariavascongada.com
HABITZIO
ERREKALDE, 47 - 20018 DONOSTIA
24 ordutako zerbitzua
943 376 980

